

# Liburuak

KRITIKA

## Artze frikia

Hemeroteka

*Aritz Galarraga*

JAIO GABEAK GINENOK ere egin dezagun ariketa: 69an gaude –69 betean, ezen ez batean–. Euskal literaturaz ari garela, pleistozenoan edo. Lozorrotik esnatzen ari da dinosauroa –katutxoa, esango dute errealistenek–. Kolpetik agertzen da JosAnton Artze delako bat, *Zeruko Argian*-eta kolaboratu izan duena, harako Ez dok amairu hartan txalaparta berreskuratzen aritu izan dena; baina liburu argital-pengintzan artean birjina duguna. Eta ateratzen du *Isturitzetik Tolosan barru* izeneko, xuabe esatearren, zera bat. Zera bat berria, berritzailea, apurtzailea, *uppercuta* irakurlearen matrailezurrera. Ez dut nik esaten, Juan San Martinek daitor liburuan berean, garaia pulstua hartuta: “Ez baita erreza izanen liburu honi kidekorik arkitzea”.

Poema bilduma gisa dugu sailkatu, baina izatez da zer edo zer gozoagoa. Objektu artistikoa Koldo Izagirreran hitzetan, biltzen baitu poema sorta, bai, baina egiten du modu berezian, ikusgarrian, leitzeko testuak bakarrik ez, begiekin jatekoak ere bailiran.



*Isturitzetik Tolosan barru.*  
JosAnton Artze.  
Pamiela, 2007  
(lehen edizioa 1969).  
144 orrialde. 20 euro.

Estetika du ausarta, diseinua dago poemaren, bildumaren manera, liburu bilakatuz eszenario multiplea. Eta liburu azkenerako da abentura bat, ez dakit Isturitzetik Tolosan barrurakoa, baina bai literarioa.

Eta ez soilik abentura estetiko, poemetan ere gai berriak ematen dira, edo gaiak ematen dira ikuspegi berritik, indarrean zeuden ideiekiko oldarkor; tarteka nahita lizun-zikinak, marteka kolpe labur lirikoak. Eta esango dut: liburu irakurri ondoren, *Txorria txori* ez da akaso Artzeren poema lortuenetako bat. Edo tira, hain dago mitifikatua, onaren eta txarraren gainetik dagoela jada –eta azpitik ere bai, estutzen banauzu–. Baina iruditeria popularrean iltzaturik geratu diren poemetatik harago, Artze osatuago bat ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu *Isturitzetik Tolosan barru* lanak.

Bere garaian oihartzuna izandakoa, ahantzuraren neguan ez ote zen erori gero, desmemorian geratzeraino. Ahantzura horrek kitzikatuta etorri zen 2007ko edizio hau, edizio faksimila, orijinala bere kontzepzioan errespetatzen duena. Bidean geratua berreskuratzeke. Bidea ireki zuena berriz errailean sartzeko. Gaur egunetik irakurketa berriak egin ahal izateko, zergatik ez. Eta literaturaz asko dakien irakasle batek esan izan dit, ahots apalean esan ere, idazle friki gisa kalifika lezakeela lasai asko Artze gaurko oinezko irakurleak. Bego. Ez dateke agian erabat okerra, ez guztiz txarra halaber. 69an jaio gabeak ginenok ere ez baitezagun ahantz: irakurketak biziarazten duela denboran barrena literatur lana.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com

